

## **Bihotz ahots**

M. L. Oñederra irakaslearen omenez



# Bihotz ahots

## M. L. Oñederra irakaslearen omenez

Irantzu EPELDE ZENDOIA  
Oroitz JAUREGI NAZABAL



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**Bihotz ahots** [Recurso electrónico]: Oñederra irakaslearen omenez / Irantzu Epelde Zendoia, Oroitz Jauregi Nazabal (arg.) – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2019]. – 1 recurso en línea : PDF (532 p.)

Textos en euskara, español e inglés.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-064-8

1. Oñederra, Miren Lourdes, 1958-. 2. Euskara (Lengua). 3. Literatura vasca. I. Epelde Zendoia, Irantzu, coed. II. Jauregi Nazabal, Oroitz, coed. III. Oñederra, Miren Lourdes, homenajeado.

(0.034)809.169

(0.034)891.69.09





## Aurkibidea

OROITZ JAUREGI, IRANTZU EPELDE. <i>Bihotz ahots</i> .....	11
IÑAKI BAZÁN. <i>Lourdes Oñederrari eta UPV/EHUko Letren Fakultateari buruzko hitz batzuk</i> .....	15
<i>Unas palabras a propósito de Lourdes Oñederra y la Facultad de Letras de la UPV/EHU</i> .....	17
IVÁN IGARTUA. <i>Aintzinsolas bat Lourdes Oñederra solaskidearentzat</i> .....	19
<i>Un prólogo (comedido) para Lourdes Oñederra</i> .....	21
JON ZARATE. <i>Lourdes Oñederraren omenaldi libururako hitzaurrea</i> .....	23
LOURDES OÑEDERRA. <i>Argitalpenak</i> .....	25
AINHOA AIZPURUA-NSAUSTI. <i>Etenak abiapuntu: bertsoetako eremu prosodikoez</i> .....	31
ANDER APARICIO MARTÍN, GORKA ELORDIETA ALCIBAR. <i>La entonación en habla leída de pacientes con disartria</i> .....	45
XABIER ARTIAGOITIA. Irudi aditzak revisited: <i>ergatiborako igoera mendeko perpaus konpletiboetatik</i> .....	71
MIKEL AYERBE SUDUPE. <i>Lourdes Oñederraren Intemperies: babesia bilatzea parentesi artean kabitzen ez denean</i> .....	87
MIREN AZKARATE. <i>Adjektibo erreferentzial ala erreferentzia-adjektibo? Euskaltzaindiaren gomendio baten hariari tiraka</i> .....	99
IÑAKI CAMINO. <i>Baxenabartar eta aetzen arteko hartu-emana</i> .....	115
CAMILO ENRIQUE DÍAZ ROMERO. <i>Alternancias sonoras en Colombia: ilustraciones desde las lenguas indígenas habladas en este territorio</i> .....	137
MAITENA DUHALDE DE SERRA. <i>Donibane Lohizuneko eskararen ahoskera: Louis-Lucien Bonaparteren inkestak</i> .....	151

KATARZYNA DZIUBALSKA-KOŁACZYK. <i>Modern Natural Phonology and phonetics</i> .....	165
M. <sup>a</sup> TERESA ECHENIQUE ELIZONDO, ENRIQUE PATO. <i>Aportaciones renovadas a las relaciones léxicas entre el vasco y el latín-romance</i> .....	175
ANDER EGURTZEGI, BORJA ARIZTIMUÑO. <i>/f/-ren sarrera eta sorrera euskaran</i> ..	197
AGURTZANE ELORDUI, Jon Gotzon Aldaparena, <i>estilizazio parodikoaren bidez «benetako» euskalduntasunaren mugak hausten</i> .....	215
IRANTZU EPELDE, BERNARD OYHARÇABAL. <i>Prepositional phrases in French-Basque and Spanish-Basque code-switches</i> .....	241
MAITENA ETXEBARRIA. <i>Diversidad lingüística: multilingüismo y lenguas en situación de minorización</i> .....	265
LIVIO GAETA. <i>Diachrony as a Source of Asymmetric Coding: Using the Past to Explain Naturalness</i> .....	279
M. <sup>a</sup> JESÚS GIL VALDÉS. <i>La eficacia de la lectura como estrategia para la enseñanza / aprendizaje de la fonética</i> .....	297
RICARDO GÓMEZ-LÓPEZ. <i>Euskal fonologiarantz: Julien Vinsonen «Premier essai de phonétique basque» (1870-1873)</i> .....	311
JOAQUÍN GORROCHATEGUI. <i>El topónimo Lourdes y las dedicaciones a las divinidades bigurdanas Castello e Istoloco</i> .....	325
J. I. HUALDE. <i>Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean</i> .....	337
BERNHARD HURCH. <i>nthui - 'mujer, hembra'. Notas sobre la sílaba en pame</i> ..	353
IVÁN IGARTUA. <i>Phonología sub specie oecologiae</i> .....	365
JOSEBA LAKARRA. Bon-/bor-/bol- familiaren berreraiketarako (II): <i>Etimología, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez</i> .....	377
JULEN MANTEROLA. <i>Metatesia Erdi Aroko onomastikan: Oñederraren ar-basoak</i> .....	397
MARI JOSE OLAZIREGI ALUSTIZA. <i>Maternidades contestadas en la narrativa de Arantxa Urretabizkaia y Lourdes Oñederra</i> .....	415
LOURDES OTAEGI IMAZ. <i>Paisaia zubiekin. Guda zibilaren isladura poetikoak</i> ..	429
MANUEL PADILLA-MOYANO. <i>Txistukari ahostunak Zuberoako testuen argitara</i> ..	457
DOLORS POCH OLIVÉ. <i>Tomás Navarro Tomás: cine y variedades lingüísticas</i> ..	481
KOLDU ULIBARRI, BLANCA URGELL. <i>Euskararen gramatizazioaren hasikinak XVI. mendean: Pedro Madariaga eta euskal hotsak</i> .....	493
JOÃO VELOSO. <i>Complex Segments in Portuguese: The Unbearable Heaviness of Being Palatal</i> .....	513
KOLDU ZUAZO. <i>Baztan-Zugarramurdi-Urdazubiko euskara</i> .....	527

**Euskal fonologiarantz:**  
**Julien Vinsonen «Premier essai de phonétique basque»**  
**(1870-1873)**

Ricardo Gómez-López  
UPV/EHU

### **Laburpena**

Artikulu honek euskal fonologiaren lan aitzindari bat aurkeztu eta aztertzeko asmoa du: Julien Vinsonen «Premier essai de phonétique basque» (1870-1873), alegia. Horretarako, lehenik, Vinsonen garaian eta XIX. mendea amaitu arte euskal hotsei buruz egin ziren ikerketen aurkezpen laburra egin dut (§ 2). Gero, atal nagusian Vinsonen artikulua aztertu dut; artikuluaaren egitura deskribatu eta erabilitako metodoaz zertzelada batzuk erantsi ondoren (§ 3.1), Vinsonen artikulua identifikatu ditudan analisi fonologikoaren zantzuak azaldu ditut (Lass 1984): fonemen inventarioa (§ 3.2), arau alofonikoak (§ 3.3) eta murriztapen fonotaktikoak (§ 3.4); atala amaitzeko, Vinsonen artikuluko ondorioetan agertzen diren gogoeta batzuk ekarri ditut (§ 3.5). Ondorioek itxi dute nire ekarpena (§ 4).

**Hitz-gakoak:** hizkuntzalaritzaren historia, XIX. mendea, euskal fonologia, Julien Vinson (1843-1926).

### **Abstract**

This paper's aims to introduce and examine a forerunner work in Basque Phonology: Julien Vinson's “Premier essai de phonétique basque” (1870-1873). Firstly, I have briefly summarized the researches on Basque sounds in Vinson's lifetime through the end of the 19<sup>th</sup> century (§ 2). Secondly, in the main section, I have examined Vinson's article; I have described its structure and added some details about Vinson's methodology (§ 3.1), and then, according to Lass (1984), I have shown the evidence of a phonological analysis which can be found in Vinson's article: phoneme inventory (§ 3.2), allophonic rules (§ 3.3) and phonotactic constraints (§ 3.4); at the end of the section, it is given further details about some reflections which can be found at the conclusions of Vinson's work (§ 3.5). Finally, this contribution is closed by my conclusions (§ 4).

**Keywords:** History of Linguistics, 19<sup>th</sup> century, Basque Phonology, Julien Vinson (1843-1926).

## 1 Sarrera<sup>1</sup>

Orain dela hogeita hamar urte Lourdes Oñederrak «Euskal fonologiazko berriak 1900 arte» artikulu gogoangarria argitaratu zuen. Lan hartan, euskal gramatikari eta idazle zaharretan aurkitu zituen fonologiaren antzeko azterketen zantzuak bildu zituen. Fonologiaren aurreko fonología, alegría. Alabaina, 1900 aurreko euskalari haien zerrendan euskal hotsez artoski arduratu zen Julien Vinson (1843-1926) falta zen, Oñederrak ez baitzuen bere lanean aintzakotzat hartu. Hartara, ekarpen honen helburua hauxe da: Julien Vinsonen «Premier essai de phonétique basque» lanean (Vinson 1870, 1871, 1873) euskal fonologiara hurbiltzen diren azterketa eta proposamenen birpasa egitea.

Aski adostasuna dago baiezatzeko fonología, hizkuntzalaritzaren atal beregain gisa, Pragako estrukturalismoarekin sortu zela, nahiz eta aitzindari garrantzitsu batzuk izan ziren (cf. Hurch 1989). Nolakoa zen, orduan, fonología «oficialaren» aurretik egiten zen azterketa fonologikoa? Zer har dezakegu fonologiaren aurreko fonologiatzat? Oñederrak berak eman zigun erantzun bat:

Gauzak garbi adierazteko eta gorago agindu bezala, bereiz genitzake fonología paradigmática eta fonología sintagmática [...]. Beraz fonología paradigmátikozat hartuko ditut hizkuntzaren hots/fonema zerrenda eta silaben ezaugarrien (oro har fonema multzoen egituraztearen) berri ematen dutenak eta fonología sintagmática esango diogu xx. mendean gehienek fonologiatzat jotzen duten horrexeri, h.d. hizkuntza ahoskatzean edo, bestela esan, aurkezpen fonologikoa fisikoki gauzatzean hizkuntzak dituen al-daketen berri ematen digunari. (Oñederra 1989: 122)

Orobata, aurrekoaren osagarri ekar dezakegu Roger Lass-en hurrengo adierazpena:

What then is a ‘phonemic analysis’ or ‘taxonomic phonology’ of a language? Essentially it is an inventory, together with realization rules for its members, and statements of distribution, that characterizes exhaustively the substantial structure of its morphemes.

It will be a set of lists, of three major types:

- (i) **Phoneme inventory.** What phonemes does language L have?
- (ii) **Allophonic rules** (exponence or realization statements). A set of rules, or a list of allophones for each member of the inventory.
- (iii) **Phonotactics.** Statements of permissible strings of phonemes (e.g. clusters, sequences, distributional restrictions, admissible syllable types). (Lass 1984: 21)

---

<sup>1</sup> Artikulu honek hurrengo proiektuen laguntza izan du: «Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología» (Espainiako MINECO, FFI2016-76023-P) eta «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT698-13).

Sarrera honen ondoren artikulua honela egituratuko da. Lehenik, Vinsonen garaian eta XIX. mendea amaitu arte euskal hotsei buruz egin ziren ikerketen aurkezpen laburra egingo dut (§ 2). Ondoren, lan honen atal nagusian, Vinsonen «Premier essai de phonétique basque» artikuluaren azterketa agertuko da; artikuluaren egitura deskribatu eta erabilitako metodoaz zertzelada batzuk erantsi ondoren (§ 3.1), Vinsonen artikuluan identifikatu ditudan analisi fonologikoaren zantzuak azalduko ditut, gorago aipatu Lassen hiru analisi motak aintzat hartuz: fonemen inventarioa (§ 3.2), arau alofonikoak (§ 3.3) eta murriztapen fonotaktikoak (§ 3.4); atala amaitzeko, Vinsonen artikuluko ondorioetan agertzen diren gogoeta batzuk ekarriko ditut (§ 3.5). Ondorioek itxiko dute nire lana (§ 4).

## 2. Euskalhotsen azterketak XIX. mendearren bigarren erdian

Euskalhotsak aztertzeko lehenengo saioak XVI. mendeaz geroztik euskal gramatikari eta idazle zaharrek alfabetoari eta ortografiari buruz egin zituzten gogoetetan aurkitzen ditugu, oraindik letrak eta hotsak bereizten ez ziren garai batean. Halako hainbat adibide daude Oñederraren 1989ko artikuluan. Baina XIX. mendearren bigarren erdian euskal hotsei buruzko liburu-atal eta artikulu bereziak agertzen hasi ziren. Nik dakidala,urrenekoa Hyacinthe de Charencey kondearen (1832-1916) artikulu labur eta nahasi bat izan zen (Charencey 1866). Lan horretan, izenburua gorabehera, Charencey k fonetikatik kanpoko kontu batzuk agerrazten ditu, hala nola euskararen ustezko hainbat aurrizki zerrendatu; baina aurkikuntza aipagarri batzuk ere baditu, *n* eta *l* ondoan herskariak ahostuntzea, esaterako: «Adoucissement de la muette après une liquide non gutturale» (1866: 10). Hurrenik, Willem J. van Eysek (1825-1914) bere lehen euskal gramatikaren bigarren edizioan sartu zituen I. eta II. kapituluak ditugu (van Eys 1867: 1-11). Alde batetik, I. kapituluan alfabetoaz eta ortografiaz dihardu eta Larrañendiren sistema zaharretik van Eysek bere gramatikan zer gorde duen eta grafia-sistema berritik zer onartu duen zehazten du (1867: 1-3); onoren, kontsonanteen taula bat eta «hots mistoen» (*sons mixtes*)<sup>2</sup> eta bokalen zerrendak eskaintzen ditu, jarraian letra bakoitzaren ahoskera erakusteko (1867: 4-6). Bestetik, II. kapituluari «Système phonique et orthographe» izenburua ematen dio eta bertan «letrek» —hau da, hotsek— izandako al-daketa batzuk azaltzen ditu, baita zenbait murriztapen fonotaktiko ere (1867: 7-11).

Kronologiari jarraituz, hurrengo lana artikulu honetan aztergai dugun Vinsonena da (1870, 1871, 1873) eta haren ondoren van Eysen gramatika konparatzaleko «Le système phonétique basque» kapitulua (1879: 13-25)

---

<sup>2</sup> Van Eysek hurrengo hauei deitzen die «hots misto»: *ll*, *ñ*, *y*, *ts* eta *tz*.

agertu zen, bere aurreko gramatikakoa errepikatzen eta osatzen zuena. Hurrengo hamarkadan Arturo Campión gazteak (1854-1937) «Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara» artikulua argitaratu zuen (Campión 1883). Lan aipagarria da, besteak beste, nik dakidala, lehenengo aldiz erabilten delako euskalaritzan *fonología* terminoa. Bestalde, ez dugu espero behar Campiónek «lege fonetikoak» neogramatikoen gisara ulertzea; aitzitik, egi-leak berak aitortzen duenez (1883: 13), bere helburu nagusia aurreko auto-reek euskal fonologiaz esandakoak biltzea da, batez ere Bonaparteren lanetan sakabanatutako oharrok.<sup>3</sup>

Mendea amaitu aurretik Charenceyren beste artikulu bat agertu zen, hiru emanalditan eta «*Phonétique souletine*» izenburuean argitaratua (Charencey 1890-1891). Oraingoan Charencey ohartzen da euskal fonología diakronikoa ezagutzeko mailegu erromanioko duten garrantziaz (1890-1891: 295). Hala ere, baliatzen duen antolamendu alfabetikoak oso nahasia eta ia-ia erabile-zina bihurtzen du bere lana.

### 3. Vinsonen «Premier essai de phonétique basque»

Julien Vinsonek euskarari eta Euskal Herriari buruzko lan zerrenda luzea utzi zigun, baina beste zenbait gai ere jorratu zituen: Amerikako eta Asiako hizkuntza batzuk eta hizkuntzalaritza orokorra, esaterako. Nik dakidala, ez da inon Vinsonen lan guztien zerrenda bildu. Euskalaritzari dagokionez, Jon Bilbaorena dateke zerrenda osoena, 350etik gora lan sartzen baititu. Beste-lako gaiez, eta Vinsonen hizkuntza ideiez, erreferentzia gomendagarrienak Desmet (1996: 397-433) eta Oyharçabal (2008) dira.

«*Premier essai de phonétique basque*» artikulua Parisko *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian argitaratu zen, bi zatitan (Vinson 1870, 1871), eta bi urte geroago eranskin bat kaleratu zuen aldizkari berean (Vinson 1873). Vinsonen aurreneko euskalari lana 1868an agertu zenez, esan dezakegu «*Premier essai de phonétique basque*» bere lehenengo lanen artean dagoela. Hala eta guztiz ere, euskarari eta euskal testuei buruzko jakintza aski zabala erakusten du. Gainera, orduko euskalaritzaren egoera kontuan hartuta, badirudi Vinsonek emaitza ona lortu zuela, Gavelen hitzei kasu egiten badiegu behintzat: «M<sup>r</sup> Vinson, dont le *Premier essai de phonétique basque*, publié dès 1870, constitue un excellent résumé de tout ce qu'il y a à dire d'essentiel sur la matière» (1920: 2).

---

<sup>3</sup> Luze joko luke, eta lan honen helburutik kanpo legoke, Campiónen lanean zer den benetan bilketa lana eta zer bere uztakoa bereiztea, noraino diren bere hitzak zintzoak eta noraino dagozkion gezurrezko apaltasunaren topikoari.

### 3.1. *Egituraz eta metodoaz*

Ia berrogeita hamar orrialde dituen artikulu bat izanik, Vinsonek nahiko egitura konplexua eman zion. Lehenik eta behin, artikuluaren bi zati nagusiak sarrera batez eta bost kapituluz osatuta daude. Bestalde, lehenengo eta bigarren kapituluak zazpina ataletan banatzen ditu, atal bakoitzak § ikurraz markatuz. Hirugarrenik, lehenengo kapitulutik laugarrenera *paragrafoak* deitu ditugunak jarraian zenbakitzenten ditu; paragrafoen zenbakiak barne-deiak egiteko erabiltzen ditu. Hurrengo eskeman artikuluaren bi zati nagusien egitura islatzen saiatu naiz:

[Sarrera] (1870: 423-425)	41-46. paragrafoak
I. Vocalisme (1870: 425-440)	§ 2. Euphonie
§ 1 <sup>er</sup> . Voyelles basques	47-58. paragrafoak
1. paragrafoa	§ 3. Variations des explosives
§ 2. Guna	59-67. paragrafoak
2. paragrafoa	§ 4. Variation des continues
§ 3. Quantité, accent, prononciation	68-75. paragrafoak
3-5. paragrafoak	§ 5. Semi-voyelles
§ 4. Euphonie	76. paragrafoa
6-24. paragrafoak	§ 6. Consonnes euphoniques
§ 5. Harmonisation	77. paragrafoa
25-28. paragrafoak	§ 7. Consonnes adventices
§ 6. Permutations	78. paragrafoa
29-37. paragrafoak	III. Mots empruntés (1871: 120-121)
§ 7. Voyelles adventices	79. paragrafoa
38-40. paragrafoak	IV. Composition par syncope complète (1871: 121-122)
II. Consonnantisme (1870: 440-459, 1871: 118-119)	80. paragrafoa
§ 1 <sup>er</sup> . Consonnes basques	V. Conclusions (1871: 122-127)

Azkenik, 1873ko eranskinean bokalez eta kontsonante palatalez jardun zuen, atal banatan.

Vinsonek erabilitako metodoari dagokionez, zenbait kontu nabarmendu nahi nituzke. Hasteko, artikuluaren helburua da gaurko euskalkien jatorria zen euskararen erregela orokorrak aurkeztea: «je prétends seulement chercher des règles générales, c'est-à-dire des règles que devaient être observées par l'idiome dont proviennent les dialectes actuels» (1870: 424-425).

Hala ere, alde handia dago Vinsonek eskura dituen lapurterazko datuen eta gainerako euskalkietako datuen artean. Izan ere, lapurterazkoak Vinsonek berak bildu ditu eta gainerakoak, aldiz, bigarren eskutik edo idatzietatik hartu ditu (1870: 424):

[J]e n'ai pu étudier directement que le dialecte labourdin; quant aux autres dialectes, j'ai pu seulement interroger quelques personnes qui les parlaient et avec lesquelles le hasard m'avait mis en contact. J'ai donc dû me fier pour beaucoup de choses aux livres et aux manuscrits. Les renseignements les plus complets et les plus sûrs m'ont été fournis par celles des publications du prince L.-L. Bonaparte qu'il m'a été possible de consulter.

Goiko pasartean Bonaparte printzearen lanak aipatzen baditu ere, kontuan har bedi ordurako Bonapartek testu askotxo argitaratu zituela (Arana Martija 1991: 161-175), baina bere *Le verbe basque oinarrizko ez bide zen 1872 arte kaleratu* (Arana Martija 1991: 174).

Lapurterazko datuak erabiltzen dituenean, Vinsonek zehaztasun handia bilatzen du bere ohar fonetikoetan. Horren adibide bat dugu hurrengo pasarte (1870: 444):

Devant les nasales, *k* et *t* s'adoucissent considérablement; je n'ose dire qu'il y a assimilation; lorsqu'un Basque prononce, par exemple, les mots *eztut nahi*, *eztut maite*, *ezkerrak merezi du*, il me paraît que le *t* ou le *k* finals disparaissent, mais qu'il y a entre la voyelle qui le précédait et la nasale qui le suivait un arrêt, un intervalle appréciable: l'oreille sent qu'il y a là une lacune, ce qui n'a pas lieu lorsqu'on dit *eztu nahi* «il ne le veut pas», *eztu maite* «il ne l'aime pas».

Aldiz, beste batzuetan grafiaren menpekoegi agertzen bide zaigu: «Devant une sifflante, *z* devient *t*; *ez + zen = etzen* “il n’était pas”, *oinez + zuazi = oinetzuazi* “vous allez à pied”, *mihiaz chakurra = mihiatchakurra* “par la langue le chien”, *ez segurki = etsegurki*, etc.» (1870: 445).

Maileguen kasuan izan ezik, Vinsonek oso zuhur jokatzen du hots-al-daketen norabidea adierazterakoan. Hartara, gehienetan = ikurraz baliatzen da (adib. «*elkar = alkár*», 1870: 434) eta gutxienetan erabiltzen ditu «*nai pr. nahi*» (1870: 431) gisako norabidezko adierazpenak, non *pr. laburdurak* (= pour ‘-ren lekuan’) gaurko kako angeluarren edo geziaren funtzioa jokatuko lukeen; alegia, *nai < nahi edo nahi → nai*. Bestela esanda, irudi luke Vinsonek nahiago duela hotsen txandakatzeak agerrarazi, hotsen aldaketak baino.

Vinsonek asteriskoa erabiltzen du bere ustez lekukotu gabe dauden formak markatzeko: «*daude* “ils restent” *pr. \*daode* *pr. \*dagode* (radical *ego*; *dago* “il reste”» (1870: 431); baita bitarteko formak direnean ere: «*heldu zâ* *pr. heldu \*zae* *pr. heldu zare* “vous êtes arrivé”» (1870: 432). Gaur egun hizkuntzalaritzia diakronikoan ohikoa den usadio hori August Schleicherri (1821-1868) esker hedatu zen 1861etik, nahiz ez zen bera izan asteriskoa horretarako erabili zuen lehena (Koerner 1989 [1977]). Badirudi, haatik, 1870eko hamarkadan asteriskoa ez zela sarri erabili (Lass 2014: 60). Nola-nahi ere den, Vinsoni dagokionez, hurrengo urteetan berriz baliatuko da aste-

riskoaz (ik., adibidez, Vinson 1872: 193), baina laster utziko dio erabiltzeari; zernahi gisaz, eta aldi labur batez izan bazen ere, Vinson izan zen, nik daki-dala, asteriskoaz baliatu zen lehenengo euskalaria.

### 3.2. Fonemen inbentarioa

Sarreran ikusi dugunez, azterketa fonologikoaren barruan sar dezakegu hizkuntzaren hots/fonemen zerrendaren berri ematea. Vinsonek informazio hori ematen digu bere lanean. Alde batetik, euskaran bost bokal (*voyelles simples*) eta bost diptongo (*voyelles diphthong[é]es*) daudela dio, eta hone-laxe aurkezten ditu (1870: 425):

a	e	i	o	u
ai	ei		oi	
au	eu			

Bistan denez, zubereraren *ii* bokala sistematik kanpo uzten du. Vinsonen ustez, frantsesaren eragina ahaztu gabe, bokal horrek *ua* bilkurau gertatzen den aldaketan izango luke abiapuntu, non *u* bokala *u* eta *i* arteko hots bat bilakatzen den (1870: 426). Bokalen inbentarioarekin amaitzeko, hizkera bat-zuetan bokal sudurkariak daudela aipatzen du.

Bokalekin egin bezala, kontsonanteei buruz ari denean ere haien inbentarioa azalduz hasten da (1870: 440-443). Vinsonek bi sail nagusi bereizten ditu, leherkariak (*explosives*) eta jarraituak (*continues*). Kontsonante sail bakoitzaren barruan, artikulazio-moduari dagozkionak ordena (*ordre*) izendatzen ditu eta ahoskuneari dagozkionak familia (*famille*), biak ala biak biologiatik hartutako terminoak. Behoko taulan saiatu naiz kontsonante sistema antolatzen, Vinsonek emandako azalpenetan oinarrituz, eta beharrezkoa iruditu zaidanean saiatu naiz oin-oharretan hots batzen kokapena justifikatzen; ordenak ardatz horizontalean kokatu ditut eta familiak bertikalean:<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Taulan erabilitako laburdurak: Heg. = Hegoaldea, Ip. = Iparraldea, Zub. = zuberera.

### 1. taula

Euskararen kontsonanteen sailkapena

	explosives			nasales	continues				
	douces	dures	dures aspirées		soufflantes		bour-donnantes	sifflantes	
						fortes			
<i>gutturales</i>	g	k	kh	n <sup>5</sup>	Ip. h	Heg. j			
<i>dentales</i>	d	t	th	n			z, s (tz?)	r, rr	
<i>mouillés<sup>7</sup></i>	d, g	t, k							
<i>palatales</i>		ts, tch		ñ <sup>8</sup>	y	Zub. j	ch	ll	
<i>labiales</i>	b	p	ph	m					
					Ip. j				

Ez da beti erraza Vinsonen hitzak zuzen interpretatzea. Esate baterako, batzueta ez du zehazten hots bat zein familiari dagokion; hala gertatzen da dardarkari eta albokoekin. Halaber, txistukarien saila ez bide du oso argi; adibidez, *tz* ez du ondo lotzen *ts* eta *tch*-ekin: «Les sifflantes *z*, *ch* et *s* reçoivent souvent un *t* avant elles; *tz* produit équivaut au *c* polonais, *z* allemand; le *ts* et le *tch* ne sont autres que les explosives dont j'ai déjà parlé plus haut, *ts* et *tch*» (1870: 442).

### 3.3. Arau alofonikoak

Artikulan zehar, Vinsonek hainbat hots aldaketaren berri ematen du, noiz aldaketaren ingurunea aipatuz, noiz aipatu gabe. Gainera, § 3.1. atalean adierazi dudanez, gehienetan ez du aldaketaren norabidea zehazten. Atal honetan, Vinsonek azaldutako zenbait arau aurkeztu eta iruzkinduko ditut, nire iritziz fonologiaren aldetik interes handiena izan lezaketenak.

<sup>5</sup> Cf.: «Dans l'ordre des nasales, nous trouvons celles des quatre familles gutturale, dentale, labiale et palatale. Les Basques méconnaissent la distinction entre les deux premières, ils écrivent: *yoango*, *izandu*, avec la même lettre *n*» (Vinson 1870: 441).

<sup>6</sup> Cf.: «vibrantes: *r*, *l*» (Vinson 1871: 123).

<sup>7</sup> Cf.: «Il conviendrait d'ajouter à ces lettres un *k*, un *g*, un *t*, un *d* mouillés, c'est-à-dire intermédiaires entre les gutturales ou les dentales, et les palatales» (Vinson 1870: 440). Hala ere, beste toki batean kontsonante bustiak palatalak direla dio (Vinson 1871: 119).

<sup>8</sup> Vinsonek ñ palatalaren izaera bigarrenkariaz ohartarazten du: «Ce ñ existe en basque, mais il est visible qu'il n'y est qu'une décadence du *n* dental; cf. *beno* = *baino* = *baño*, etc., *egiñ* = *egin*, etc.; très souvent, comme dans ce dernier exemple, l'apparition de ñ est manifestement provoquée par *i* précédent» (1870: 441). Orobatsu albokoari dagokionez: «On trouve en basque la *l*. Cette lettre a souvent dégénéré en *ll* (c'est-à-dire presque *y*) [...], principalement sous l'influence de *i* précédent» (1870: 442).

Sanskritoaren gramatika tradiziotik *guna* terminoa<sup>9</sup> hartzen du, euskaran bokalen eta diptongoen artean gertatzen diren txandakatze batzuk azaltzeko. Esaterako, Vinsonen ustez *guna* adibideak dira *e > eu* luzatzetzat hartzen dituenak: *utzi/eutzi, uril/euri, uli/euli*, etab. (1870: 426). Haien artean sartzen ditu genitibo indartuak ere, antza denez aldaera dialektal hutsak direla uste baitu: «Il faut mentionner ici les génitifs, particuliers à certains dialectes, *neure, heure, geure, zeure*, des pronoms *ni* “je”, *hi* “toi”, *gu* “nous”, *zu* “vous” (formes plus communes *nere ou nire, hire, gure, zure*)» (1870: 426-427). Oraingoan Vinsonenek aditza bidenabar bezala aipatzen badu ere (1870: 427, 1. oh.), hurrengo lan batean *guna* aditzaren eremura eramango du eta gunatzat hartuko ditu *du > dau* eta *niz > naiz* gisako ustezko aldaketak (Vinson 1872: 205, 209).

Bokal bilkurak aztertzerakoan, Vinsonek hiru ingurune (*trois cas*) beiezten ditu (1870: 428): (1) hitz baten amaierako bokala eta hurrengo hitzaren hasierako bokala elkartzen direnеко; (2) hitz baten amaierako bokala eta atzizki baten hasierako bokala elkartzen direnеко; eta (3) hitz baten barruan gertatzen dena. Lehenengo inguruneak interesa du, hitzetik haratagoko kateak hartzen dituelako kontuan (*ezt' etchian < ezta etchian*), baita hitz elkartuak ere (*alberri<sup>10</sup> < albo-erri*). Bigarren ingurunean gero Bonaparteek *eufonia* deituko zituenen berri ematen du Vinsonek (*alaba + a > alabea, etche + a > etchia, artho + a > artua, artoba, artoma*, etab.). Azkenik, hirugarren ingurunean gorde ohi den hiatoak Vinsoni balio dio hitz batean konsonante bat galdu dela jakiteko, orduantxe bakarrik gertatzen direlako hitz barnean bi bokal elkarren ondoan (1870: 431):

*Troisième cas.* — Quand deux voyelles se rencontrent dans le corps d'un mot, ce qui n'arrive que lorsqu'une consonne est tombée, souvent il y a hiatus, même dans les dialectes qui observent les permutations dont nous venons de parler: *et c'est ce qui fait reconnaître la chute de la consonne.* [Azpimarratua nirea da.— RGL]

Eufonia direlakoei buruz ari delarik, Vinsonek deskribapen fonetiko zehatzak egiteko duen asmoaren beste adibide on bat aurkitzen dugu (1870: 430):

Les Labourdins distinguent *semia* (pr. *semea* «le fils») et *otsua* (pr. *otsoa* «le loup»), de *mendia* et *burua*, et ce que, disent-ils, les premiers *i* et *u* sont brefs et les seconds longs. Je crois plutôt que les premiers *i* et *u* sont en réalité *y* et *w*, de sorte qu'il conviendrait d'écrire *semya, otswa*; en tout cas, ce ne sont pas des *i* et des *u* francs; souvent, dans les chansons, les *ia, ua* résultant de *ea, oa* ne comptent que pour une syllabe.

<sup>9</sup> *Guna* terminoa Pānini (K.a. vi-v. mendeen inguruan) gramatikari indiarren lanetatik dator eta hizkuntzalaritza indoeuropearrean ablautaren gradu osoarekin (*full grade, Vollstufe* edo *Grundstufe*) identifikatu ohi da (cf., adibidez, Leumann 1954).

<sup>10</sup> Bide batz, *OEH*ren arabera *alberri* forma Azkuez geroztik lekukotzen da. Vinsonen honek zenbait urtez aurreratzen du lehenengo agerraldia.

Vinsonen iritziz, euskaran ez dago bokal-harmoniarik. Hala ere, uste du harmoniaren antzeko zerbait gertatzen dela *r*-*z* hasten diren maileguetan bokal protetikoa hautatzerakoan: «Lorsque ces mots commencent par *r*, une voyelle est préfixée, mais non point au hasard: c'est *a*, *e* ou *i*; *a* quand la première voyelle après *r* est *a* ou *o*, *e* quand cette voyelle est *e*, *i* quand cette voyelle est *i» (1870: 433). Alabaina aitorzen du salbuespen ugari dagoela eta, gainera, Hegoaldeko euskaldunek *e*- eta Iparraldekoek *a*- nahiago dutela. Gauza bertsua adierazten du bokal anaptitikoei dagokienez: «Lorsque les mots étrangers contiennent des groupes que le basque ne tolère pas, une voyelle est intercalée et généralement elle est de même nature que celle qui suivait le group décomposé» (1870: 434).*

Esan bezala, aldaketa batzuen berri ematerakoan Vinsonek ingurunea aintzat hartzen du. Adibidez, baieztatzen du Hegoaldean sarri *a* agertzen dela, eta ez *e*, dardarkari gogorraren aurrean. Haatik, ez du *e > a* aldaketa bezala aurkezten, baizik eta berriz ere txandakatze hutsa bailitzan: «les dialectes espagnols prennent plus volontiers l'*a* que les dialectes français, principalement quand la consonne suivante est *r* dur: *barri = berri* “neuf”, *charri = cherri* “cochon de lait”, *ichtar = ichter* “cuisse”, *bardin = berdin* “égal”, etc.» (1870: 434).

Bokalekin egin bezala, kontsonantez amaitutako hitz baten eta kontsonantez hasitako beste hitz baten artean gertatzen diren aldaketez mintzo da, hala nola bi leherkari elkartzen direnean: «*gizonak + kin = gizonakin*, *gizonak + gabe = gizonakabe*, *hunat + goiti = hunakoiti*, *galduak + dire = galduatre*, *hunat + duzu = hunatzu*, *neretzat + bai = neretzapai*, etc.» (1870: 443). Datuok ahozko hizkeratik hartzen ditu Vinsonek —lapurteratik, segurki—, aitorzen baitu liburuetan behin baino ez duela halako aldaketarik aurkitu: hain zuzen, Salaberriren hiztegiko *lokharri* eta *lotgarri* hitzetan. Gainera, berriz ere zehaztasun fonetikoaren bila, Vinsonek ohartarazten du emaitzako kontsonantea askotan hasperenduna dela iruditzen zaiola, batik bat lehenengo hitza silababakarra denean: «L'explosive dure produite ainsi me semble fréquemment aspirée, principalement dans le cas où le premier mot est un monosyllabe: *niphi* pour *nik bi*, *baphertzia* pour *bat bertziari*» (1870: 443-444).

Leherkariez amaitzeko, Vinsonek ohartarazten du —*nik* dakidala lehenengo aldi— latinetik hartutako maileguetan hitz hasierako herskari ahoskabeen ordez euskaraz ahostunak ditugula:

Il est probable qu'originairement les mots basques ne pouvaient pas commencer par une explosive dure, car il est très remarquable que dans beaucoup d'expressions empruntées au latin, *p* initial est devenu *b*, *t* est devenu *d*, et *k* initial est devenu *g* [...]. Quelquefois dans deux dialectes différents, on trouve deux formes, l'une dure, *kurutze* «cruce», et l'autre douce, *gurutze*, évidemment plus ancienne. (1870: 450)

Kontsonante sudurkariez den bezainbatean, hurrengo kontsonantearen ahoskunearekin asimilatzen direla azaltzen du: «La nasale s'accommode à l'organe de la consonne qui la suit: *nongo, nombeit, nondik, hango, hambat, hantche, handik*, etc.» (1870: 453). Hala ere, bistan da, asimilazio horietaz ja-betzeko Vinsonek ez zuen grafiaren laguntzarik, ezpainkarietan izan ezik, eta, ondorioz, pentsatu beharko genuke horretarako ere ahozko datuez baliatu zela.

Amaitzeko, palatalizazio adierazgarriaren berri ematen du, txistukariei dagoienez behinik behin: «*Ch* remplaçant *z* donne souvent aux mots un sens diminutif; *chichari* “petit ver”, *zizari* “gros ver”; *chakhur* “petit chien”, *zakhur* “gros chien”» (1870: 458). Bestalde, asimilaziozko palatalizazioaz ere jabetzen da: «*L* devient *ll* par l'influence d'un *i* voisin» (1870: 458). Alabaina ez du hain argi deskribatzen sudurkarien kasuan: «*N*, après ou avant *i*, a de grandes tendances à devenir palatale» (1870: 455); ik., hala ere, 8. oin-oharra.

### 3.4. Murritzapen fonotaktikoak

Artikuluan zehar sakabanatuta, Vinsonek euskarazko hitzek dituzten murritzapen fonotaktiko batzuk aipatzen ditu. Jarraian haietako zenbait aurkeztuko ditut. Hasteko, hitz hasieran eta hitz amaieran ager daitezkeen hotsak zehazten ditu: hitz hasieran ezinezkoak diren hotsak «les deux *r*, *ts*, *tch* et *n* gutturale» dira (1870: 443); bestalde, hitz amaieran ager daitezkeenak «les voyelles et les seules consonnes *k*, *t*, *z*, *s* (ou *ts*), *ch* (ou *tch*), *l*, *n*, *r* dur et *r* doux» (1870: 443). Nabarmenzekoa da hala hitz hasieran ezinezkoak diren hotsen artean nola hitz amaieran ager daitezkeen artean *tz* ez aipatzea; beharbada gabezia hori lotuta egon liteke gorago (§ 3.2) ikusi dugun Vinsonen txistukarien ikuspegia nahasiarekin.

Hainbat kontsonante bilkura aztertu ondoren, Vinsonek ondorio orokor bat ateratzen du euskaraz ager daitezkeen kontsonante taldeei buruz. Talde hauexek lirateke: *rT, rN, ND, lD, NtS, rtS, ltS* eta *ST*.<sup>11</sup>

En général, le basque se refuse au concours de deux consonnes. Sont admis seuls les groupes formés de *r* et d'une explosive ou d'une nasale, d'une nasale et d'une explosive douce, de *l* et d'une explosive douce, d'une nasale et d'une sifflante (avec *t* interposé), de *r* ou *l* et d'une sifflante (avec *t* interposé), d'une sifflante et d'une explosive forte. On rencontre d'autres groupes, mais souvent alors le contact des deux consonnes incompatibles s'explique par la suppression d'une voyelle intermédiaire. (1870: 448)

Silaba egiturari dagokionez, Vinsonek honako egitura hauek bakarrik onartzen ditu euskara zaharrerako: V, CV eta VC, azkena gutxiagotan gerta-

<sup>11</sup> Erabilitako laburdurak: C = kontsonantea, V = bokala, T = leherkaria, D = leherkari ahostuna, N = sudurkaria, S = txistukaria.

turik (1871: 122). Gainera, euskara zaharrean bi kontsonante elkartzen zirenean, maiz taldea bakuntzeko joera zegoela dio.

Azkenik, interesgarria da azentuaren kokapenaren eta hitzaren tamaina-rent arteen iradokitzen duen lotura: «L’accent ne se place guère sur d’autres syllabes que les deux dernières [...]. Au reste, il ne doit pas y avoir de mot purement basque de plus de trois syllabes; la grande majorité des mots basques a seulement deux syllabes» (1870: 427-428).

### 3.5. Azken gogoetak

Bere obra linguistiko guztian behin eta berriz azalduko den ikuspegi bat adierazten du Vinsonek euskal fonetikaz egindako azterketa dela eta: euskara munduko beste edozein hizkuntzaren modukoa da. Vinsonek ez du euskaranen fonetikan berezko ezer ikusten eta, hortaz, euskaran gertatzen diren fenomeno guziak, salbuespenik gabe, munduko hizkuntzaren batean edo bestean ere gertatzen direla dio. Ondorioz, euskal fonetika aztertzeko aski da metodo orokorra erabiltzea: «Nous avons vu également que, en basque comme dans les autres langues, on constate des variations par affaiblissement, par renforcement, par suppression, par assimilation. Donc, la méthode générale est parfaitement applicable aux dialectes euscariens» (Vinson 1871: 123).

Artikuluaren ondorioekin jarraituz, Vinsonek proposatzen du zein izan zen jatorrizko euskal alfabetoa (1871: 123-124):

- Bokalak: *a, e, i, o, u*
- Bokalerdia: *y*
- Kontsonanteak:
  - Leherkariak: *k, t, p; g, d, b; tch*
  - Sudurkariak: *n, m*
  - Txistukaria: *z*
  - Dardarkariak: *r, l*

Jakina, goikoan ez dugu ulertu behar Vinsonen ustez antzinako euskaldunek beren idazkera sistema zutenik; aitzitik, *alfabeto* hitzaren bidez antzinako euskaran zeuden hotsen zerrenda adierazi nahi du. Zerrendakoez gain, Vinson zalantzhan dago hots batzuk jatorrizko alfabetoan sartu ala ez. Hartara, garai batean euskaran bokal surdurkariak ere bazeudela uste du, baina ez daki ziur jatorrizkoak diren. Halaber, ez du iritzi argirik *h* hasperenari eta *w* bokalerdiari dagokienez. Beste alde batetik, bereziki aipagarria iruditzen zait bi txistukari baino ez proposatzea: *z* igurzkaria eta leherkarien artean sartzen duen *tch* afrikatua.

Lanaren amaieran Vinsonek lapurtera transkribatzeko sistema bat proposatzen du, jakin baitaki bere garaian erabiltzen den alfabetoa ez dela aski

egokia dialektoaren hots guztiak zehatz-mehatz irudikatzeko (1871: 123-124). Erakusgarri gisa *Les Misérables*-en pasarte bat eskaintzen du, Sarako norbaitek<sup>12</sup> lapurterara itzulia eta lau bertsiotan aurkeztua: garaiko ortografiaz idatzia, Vinsonek proposatutako ortografiaz idatzia, hitzez hitzeko frantssezko itzulpena eta Victor Hugoren jatorrizko testua (1871: 125-127). Van Eysek, 1871ko abenduaren 10eko gutun batean, transkripzio sistemaren proposamena kritikatu zion Vinsoni; alderdi batzuk ontzat hartu zituen —hala nola *tch* eta *ts*-ren ordez *ç*' eta *ć* proposatzea, hurrenez hurren— eta beste batzuk ez zitzazkion hain egokiak iruditu —esaterako, bokal arteko *r* guztiak ez transkribatzea edo ezpainkarien aurrean *m* idaztea: *azkem pampinaï* ‘azken panpinari’— (Munduate 2017: 29-30, 134).

#### 4. Ondorioak

Fonologia hizkuntzalaritzaren adar bezala sortu aurretik, hizkuntzaren gaineko lanetan ez da falta izan gaur egun analisi fonologikoan sartu ohi diren interesguneei buruzko azterketarik: alegia, hizkuntzen hots inventarioei, hots aldaketei eta hots elkartzeen murriztapenei buruzko azterketak, bestek beste. Euskalaritzari dagokionez, XIX. mendearren bigarren erdian hasi ziren euskararen hotsak aztertu zituzten lan bereziak agertzen, eta horietako bat izan zen artikulu honetan ikergai izan dudan Vinsonen «Premier essai de phonétique basque».

Vinsonen helburua gaurko euskalkien jatorria zen euskararen erregea orokorrak azaltza izan zen. Goiko lerroetan erakutsi dut bere helburua betetzeko Vinsonek, lehenik, bokalen eta kontsonanteen inventarioa antolatu zuela; zeregin horretan arazorik handienak txistukariak sailkatzerakoan izan bide zituen. Horrezaz gain, Vinsonek identifikatutako zenbait hots aldaketa aurkezu eta iruzindu ditut. Ikusi dugunez, Vinsonen lanean zenbait joera nabarmentzen dira hots aldaketen berri ematean: (1) gehienetan Vinsonek txandakatze gisa aurkezu zituen hots aldaketak, aldaketaren norabidea markatu gabe; (2) askotan saiatu zen ohar fonetiko zehatzak ematen, batik bat ahoz bildutako lapurterazko datuak erabiltzen zituenean; eta (3) batzuetan aldaketaren ingurunea zehaztu zuen. Halaber, Vinson ahalegindu zen euskaran hitz hasieran eta amaieran ager daitezkeen hotsak zehazten, baita posible diren kontsonante bilkurak eta silaba egiturak ere. Amaitzeko, ikusi dugu Vinsonek aldarrikatu zuela euskara beste edozein hizkuntza bezala ikertu behar dela, saiatu zela antzinako euskarak zituen hotsak zerrendatzen eta proposatu zuela lapurtera zehazkiago transkribatzeko alfabeto bat.

---

<sup>12</sup> Vinsonek argitzen du itzultzaleak ez diola baimenik eman bere izena argitaratzeko (1871: 125).

## 5. Erreferentziak

- Arana Martija, José Antonio, 1991, «Bibliografía bonapartiana», *Euskera* 36:1, 127-297. Berragitz. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.
- Bilbao, Jon, 1970-1996, *Eusko Bibliographia*, 13 lib., Donostia & Bilbo: Auñamendi & UPV/EHU. Argitalpen elektronikoa erabili dut: <[http://www.bizkaia.eus/foruliburutegia/index\\_euskobibliographia.htm](http://www.bizkaia.eus/foruliburutegia/index_euskobibliographia.htm)>. [Kontsulta: 2019/05/06].
- Campión, Arturo, 1883, *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara*, Donostia: Hijos de I. R. Baroja. [«Dado a luz por primera vez en la revista bascongada *Euskal-Erria*】.
- Charencey, Hyacinthe de, 1866, *Recherches sur les lois phonétiques de la langue basque*, Caen: F. Le Blanc-Hardel. [«Extrait des Mémoires de l'Académie impériale des Sciences, Arts et Belles-Lettres de Caen»].
- , 1890-1891, «Phonétique souletine», *RLPhC* 23, 293-311; 24, 72-88, 144-165.
- Desmet, Piet, 1996, *La linguistique naturaliste en France (1867-1922): Nature, origine et évolution du langage*, Leuven & Paris: Peeters.
- Gavel, Henri, 1920, *Éléments de phonétique basque*, Paris: Champion.
- Hurch, Bernhard, 1989, «Raíces de la fonología: pensadores prestructuralistas», *ASJU* 23:1, 95-113.
- Koerner, E. F. Konrad, 1989 [1977], «Sulla origine e storia dell'asterisco nella linguistica storica: un cenno storiografico», in E. F. K. Koerner 1989, *Practicing Linguistic Historiography*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 179-184.
- Lass, Roger, 1984, *Phonology. An introduction to basic concepts*, Cambridge: Cambridge University Press.
- , 2014, «Lineage and the constructive imagination. The birth of historical linguistics», in C. Bowern & B. Evans (arg.), *The Routledge Handbook of Historical Linguistics*, Londres: Routledge, 45-63.
- Leumann, Manu, 1954, «Vokaldehnung, Dehnstufe und Vrddhi», *Indogermanische Forschungen* 6, 1-16.
- Munduate, Manex, 2017, *Vinson eta van Eysen arteko gutunetatik XIX. mendeko euskalaritzara hurbilketa*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Master Amaierako Lan ar-giraragabea.
- Onederra, M. Lourdes, 1989, «Euskal fonologiazko berriak 1900 arte», *ASJU* 23:1, 115-132.
- Oyarzabal, Beñat, 2008, «Naturalist conceptions about agglutinative languages: Vinson's ideas about Basque and linguistic Darwinism», in X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren gehigarriak, 51), Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 665-690.
- Urquijo, Julio, 1927, «Julien Vinson (1843-1926)», *RIEV* 18, 217-224.
- van Eys, Willem J., 1867, *Essai de grammaire de la langue basque, deuxième édition revue et augmentée*, Amsterdam: C. M. van Gogh.
- , 1879, *Grammaire comparée des dialectes basques*, Paris: Maisonneuve.
- Vinson, Julien, 1868, «Coup d'œil sur l'étude de la langue basque», *RLPhC* 1:4, 381-405.
- , 1870, «Premier essai de phonétique basque», *RLPhC* 3:4, 423-459.
- , 1871, «Premier essai sur la phonétique basque», *RLPhC* 4:2, 118-127.
- , 1872, «L'étude de la langue basque: les publications récentes du prince L.-L. Bonaparte», *RLPhC* 5:2, 190-219.
- , 1873, «Phonétique basque», *RLPhC* 5:3, 276-290.